

SAGARROIA

Sagarroia¹ bide gainean da
baina kasu²! suge bat heldu da³.

Sagarroia bide gainean da
baina kasu ! suge bat heldu da.

Pilota bat bezala eman da⁴:
« Kasu xixta, ez hurbil nigana ! ».


Pilota bat bezala eman da :
« Kasu xixta, ez hurbil nigana ! ».

¹ sagarroia : kirikiñoa, trikua

² kasu ! : kontuz !

³ heldu da : horra da, badator

⁴ eman da : jarri da




HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Lau denborako egitura landu. Taupada senditu, lasterrago eta emekiago eginez. Zuzen kantatu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. ◆ Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu; jokamoldea iharduerei egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.
MUNDUAN IHARDUN. Mugimenduak koordinatu. Jestuen zehaztasuna landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...) ◆ Egintzen burutzerak ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea) 3 - 4 urtekoentzat

Haurrak xutik daude.

Taupada jo: eskuak jo eta ondotik, eskuak izterren kontra jo (aldizka).




eta abar...


USTIAPENA (egin moldea) 4 - 5 urtekoentzat

Haurrak xutik daude.

Taupada jo segida honi jarraikiz :

- Oinekin lurra jo aztalak lurrean atxikiz.
- Eskuekin izterrak jo.
- Eskuak jo.
- Eskuak airean altxatu.







eta abar...


USTIAPENA (egin moldea) adin guztientzat. Taupadaren lantzeko.


1. Haurrak kadiran/aulkian jarririk daude.

Kantu osoaren taupada, batean laster, eta bertzean baratxeago/emekiago landuko dute, lau molde hauek banazka edo aldizka erabiliz (ahal den heinean) :

- Erhi batekin ahurrean jo : 

- Oinekin lurra jo aztalak lurrean atxikiz : 

- Erhiekin ahurrean jo : 

- Bi makil elkar jo : 

2. Haurrak xutik daude.

Zangoekin lurra jotzen dute : baratxe/emeki ibiliz eta gero lasterka.

☺ Marrazkia margo ezazu.

